

7

SEGURTASUNA SAREAN I

ABENDUA
2016

Infokontsumoa



APP-ak ETA SARE SOZIALAK

SANTURTZI
udala - ayuntamiento
Stz

IUB
MIC

 **kontsumoBIDE**
KONTSUMOKO
EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO
DE CONSUMO

APP-en PRIBATUTASUNA

- ▶ App-a jaitsi aurretik, baloratu benetan beharrezkoa den.
- ▶ Egiaztatu app-a duen webgunea fidagarria den. Apple Store edo Google Play-etik ziurragoa da.
- ▶ Kontuan izan beste erabiltzaile batzuek emandako balorazioak; zenbat eta gehiago izan (positiboak) orduan eta fidagarriagoa da.
- ▶ Zalantzarik izanez gero, hobe da nahi ditugun funtzioen antzekoak dituen beste app bat bilatzea, baina ziurtasuna bermatzen diguna.
- ▶ Instalatu aurretik, erabiltzeko baldintzak eta emango dituzun **baimenak** irakurri. Besterik ezean, instalazioarekin batera baimen batzuk agertzen dira .
- ▶ Instalatu ondoren, baimen eta pribatutasun aukerak alda daitezkeen egiaztatu. Ezin bada, hobe desinstalatzea.
- ▶ Egiaztatu zeintzuk baimen eskatu ahal dizuten eguneraketa bakoitzean.
- ▶ Babestu zure gailuak eguneratuta dagoen antibirusaren bidez.



NOLA IDENTIFIKATU APP GAIZTOA

App gaiztoa zure datuak ezabatu edo erabiltzeko gai da zu konturatu gabe


- ▶ App-a ez badator bere garatzaile nagusiarekin bat.
- ▶ Beste erabiltzaile batzuen balorazioak gutxi (nahiz eta positiboak izan) edo negatiboak badira.
- ▶ App-aren gaineko iruzkin negatibo asko badaude.
- ▶ Beharko lukeen baino baimen gehiago eskatzen badu. *Adibidez: Eskuargia app-ak flasharen bidez kamerarako sarbidea baino ez du behar, baina aplikazioen, argazkien, artxiboen, kokapenaren, wifiari buruzko informazioaren eta abarren historia-lean sartzeko baimena eskatzen dizu.*
- ▶ Deskarga gutxi baditu, ez dago nahikoa informaziorik fidatzeko.
- ▶ Ezinezkoak diren gauzak edo Premium aplikazioen funtzionaltasunak doan eskaintzen baditu.

Iturriak:

Instituto Nacional de Seguridad (INCIBE), www.incibe.es
Agencia Española de Protección de Datos (AEPD), www.aepd.es
Oficina de Seguridad del Internauta (OSI), www.osi.es

SARE SOZIALAK

- ▶ Sare sozial bakoitza zertarako den identifikatu eta erabiltzen ikasi.
- ▶ Sare sozial batean izena ematean, beharrezkoak ez diren datu pertsonal asko eska ditzakete. Baloratu zeintzuk datu eman nahi dituzun.
- ▶ Irakurri pribatutasun politika eta zerbitzuaren baldintzak, erabili aurretik.
- ▶ Egiaztatu sare sozialean jarri duzun profila ez dela zure bitza pertsonalera sar-tzeko atea.
- ▶ Babestu zure sareak pasahitz sendoez.
- ▶ Izena eman ondoren, konfiguratzeko aukerak aztertu pribatutasun eta segurtasun alderdiak kontrolatzeko. Adibidez:
 - * Zure profila Interneteko bilatzaileetan dagoen.
 - * Nork daukan zure argitalpenetarako sarbidea.
 - * Nork jar ditzakeen etiketak.
 - * Zure argitalpenek geolokalizazioa duten.
- ▶ Sare sozialean informazioa publikatu aurretik, ondo pentsatu zer partekatu nahi duzun eta norekin. Sare sozial batean zerbait argitaratzen dugun bakoitzean, eduki horren gaineko kontrola galtzen dugu.
- ▶ Gogoratu Interneten argitaratzen duzuna zure ospe digitala bihurtzen dela, zure ospe pertsonala edo sozialera lotuta joango dena.
- ▶ Kontuz ibili sare sozialetan dauden aplikazioei eta jolasei ematen dizkiezun baime- nekin.
- ▶ Itxi beti saioa aplikazio guztietan.
- ▶ Jabetu profiletan argitaratu beharko ez zenukeen informazioaz:
 - * Datu pertsonalak
 - * Pasahitzak
 - * Bankuko datuak
 - * Telefono mugikorra
 - * Oporretarako asmoak
 - * Datu medikoak edo osasunari buruzkoak
 - * Egoera zailak
- ▶ Segurtasun arazoak badituzu, jar zaitetz harremanetan sare sozialarekin berarekin, harremanetan jartzeko edo salatzeko mekanismoen bidez.



Iturriak:

Instituto Nacional de Seguridad (INCIBE), www.incibe.es
Agencia Española de Protección de Datos (AEPD), www.aepd.es
Oficina de Seguridad del Internauta (OSI), www.osi.es

ADINGABEEN PRIBATUTASUNA

- ▶ Babestu zure eta adingabeen pribatutasuna, gurasoen kontrolerako lanabesak erabiliz .
- ▶ Eduki ezegokiak burutu eta blokeatu ahal dituzten jarduerak murriztu.
- ▶ Webcam-ak desaktibatuta eta estalita izan.
- ▶ Aplikazioen pribatutasun-ezarpenen konfigurazioa berrikusi.
- ▶ Sustatu sare sozialetako erabilera arduratsua eta argitaratzen den irudia zaintzearen garrantziaren gaineko kontzientzia harrarazi.
- ▶ Gailu digitalak erabiltzeko gehienezko denbora tartek ezarri.
- ▶ Babestu gailuak antibirusak ezarriz.



NON ETA NOLA EGIN ERREKLAMAZIOA

Zure eskubideak urratu dituztela uste baduzu,
Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren
aurrean jar dezakezu erreklamazioa
www.aepd.es

Edozein zalantza izanez gero, jo honako honetara:

Santurtziko KIUB bulegora
Kontsumitzaileei Informazioa emateko Udal Bulegoa
Murrieta etorbidea, 25. (Oriol Jauregiaren ondoan)
Ordutegia: 9:30-13:30 astelehenetik ostiralera

